



Gorka Zozaia
Kimikaria

Harro

Duela aste pare bat pasadizo bitxi bat izan nuen Eusko Jaurlaritzako Zuzenean zerbitzuan. Pisu aldaketa ia urtero egiten dugunok (prekariadoa?) pairatzen dugun helbide nahasmenaren ondorioz, Etxebideko zerrendatik bajan eman zidatela jakinarazi zidaten, eta antzinatasuna galduta, berriz inskribatu behar nintzela adierazi. Hala, gaztele-raz eman zidaten inprimakia betetzen hasi eta bigarren galdera erantzuteko zalantza egin nuen istant batez: “sexo” galdera eta bi aukera, H eta M. “Hombre” eta “mujer” artean aukeratu behar nuela irudititu zitzaidan hasieran, baina galdegaia “generoa” ordeztu, “sexua” izanik, pentsatu nuen “hembra” eta “macho”ren arabera erantzutea zela aproposagoa. Ez nuen denborarik orduan gaiari buelta asko emateko eta M-aren ondoan egin nuen gurutzea.

Maiz aritu naiz lerrootan sexuaz. Are, zientzia gai hartuta, epistemologia feminista zeharlerro konstantea da zutabe honetan. Izan genero edo identitate sexualagatik mespretxaturiko zientzialariak gogora ekartzeko, izan gizon zuri klase altuko zientzia orohar arbuia- tzeko, biharko moduko aldarrikapen egunei ekarpena egin nahi izan diet txoko honetatik. Lehenago egin izan ez banu, “The imitation game” filmarekin ospea irabazi duen Alan Turing omen- duko nuke berriz ere. Eta orduko homofobia salatze baina gehiago, egungoa agerian jartzeko. Zenbat denbora da ba Europar justiziak homosexualei odola ematea debekatzea babestu duela? Dena oso zientifikoa, hori bai: GIB, garu- neko ezberdintasunak... ar/eme katego- riak bereizteko erabiltzen den intersexua (tarteko hori, arraroa, sal- buespen genetiko edota fenotipikoa) oraindik orain gaixotasun gisa trata- tzen da, eta mutilazio genitalekin kon- pondu!

Sexuarena, baina, gai konplexuegia da Prokustoren ohera egokitzeko. Konplexua definizio eremuan, biolo- giko zein sozialean, eta konplexua plano politikoan ere. Greziarrez jaso omen zituen pinguinoen jokaera sexual

arraroen gaineko apunteak George Murray Levick-ek, 1911n Scott-ek polora zu- zenduriko Terra Nova espedizioan hila- bete batzuk geldirik eman zituenen. Adelaida pinguinoak behatu ei zituen: arren artean txortan, txitak bortxatzen, emeak sexualki jazarriz, isuri arte lurra- ren kontra igurtziz, baita hildakoak pe- netratuz ere! Ehun urte geroago, grezia- rrez apika ez, baina, ez da aise mintzatzen animalien sexuaz. Gure ar- tean sexua ekonomia (familia) ereduari egokitzeko definitzen dugun bezala, gai gara ikusmolde eta kategoria horiexek animaliei egozteko ere. Antropozentris- moa horren da ausarta! Bada, jarrera horri aurre eginez, eta, batez ere, ani- malien sexuan zakilari eman zaion zen- traltasuna arbuiaitzeko, liburu kaleratu berri du Jules Howard zoologo britainia- rrak. “Sexua Lurrean” (Sex on Earth) izenburupean, emeek eboluzioaren mo- tor gisa duten rola aldarrikatzen du, «munduak bagina historia gehiago be- har ditu». Ahateen adibidea argigarria omen da: atentzioa ahate arren zakile- an zentratu ohi da, bere luzatze abiadu- ra harrigarrian (1,6m segundoko!), bai- na ez emeen baginan, are harrigarri eta konplexuagoa dena. Espiral forma du,

zakilak bezala, baina kontrako zentzuan eta bihurturaz josia. Hala, kopulazioen herena bortxaketak izan arren, jartzen diren arrautzetatik soilik %3 dira bor- txatzaileenak. Hots, bere organu sexua- laren bidez, emeak hautatzen du zein esperuari sartzen utzi, eta zeini ez, eta ebolutiboki hori da interesgarriena.

Bonoboek, ika-mikak saihesteko, es- grima egiten dute beren zakilekin. Iguanak, estalketak denbora gutxia- go iraun eta arriskuak ekiditearren, masturbatu egiten dira aurretik. Ipur- targei ar batzuek nahiago dute farole- kin larrua jo. Tyrannosaurus rex-aren besotxoek estaltzean heltzeko balio zu- ten eta “Nemoren bila” egiatzko istorioa balitz, protagonista hermafrodita jai- o-ko zen, ar bezala hazteko, eta aitarekin sexu harremanak izango lituzke.

Animalietan, gizakien artean bultzatu nahi zen jokaera sexualen bila jardun izan du zientziak heteropatriarkatua justifikatzeko, baina alderantziz, ani- malienak, gizakiok zapalkuntza sistema bat mantentzeko asmatu- riko norma eta moralak apurtzeko bide ematen duela dirudi. Ni neu, gero eta harroago nago animalia izateaz. •



Ahateen arteko kopulazioen herena bortxa bidez izan ohi da. GAUR8